

BOSGARREN ZIKLOA

Euskal Kultura

AUZOLANA EUSKALGINTZARAKO

M. Karmen Garmendia Lasa andrearen hitzaldia

*Emandako hitzaldia
1993.eko otsailaren 16an*

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Hizketan hasi aurretik eskerrak eman nahi ditut «Forum Deusto»k, bertako buru den Juan Churrucak eta zuzendaritza-batzordeko kide guztiek hona etortzeko egin didaten gomitatatik. Lehenengo eta behin, gure

* Mari Karmen Garmendia Lasa Gipuzkoako Ormaiztegin jaio zen, 1947ko ekainaren 9an. Eskondua da. Semea eta alaba ditu. Majisteritza eskuratu zuen 1967an. Deustuko Unibertsitatean, Filologia Erromanikoa egin zuen, 1973an lizenziatura amaitu zuelarik. Doktoradutza, berriz, Psikologia, Estrasburgoko Unibertsitatean, 1985ean.

Irakaskuntzari eman ziztaion zenbait hezketa lekutan, hala nola: Donostiako Santo Tomas Lizeoan, 1970-1979 bitartean. Donostiako Elizbarrutiko O.H.O. Irakasle Hezketa Eskolan, 1979-1985 urtealdian. Irakaskuntzari emana zela, aldi berean, hezketa arloko hainbat proiektutan hartu zuen parte, koordinakuntza eginkizunetan nahiz argibide eskeintzakoan. Proiektu hauen artean aipatzekoa da hizkuntza ereduaren diseinu eta gauzatzea Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusi izendatu zuen Ardanza Lehendakariak 1985eko uztailak bira zuela. Epealdi beronetan, Euskararen Kontseiluko Idazkari Orokorra da, kontseilu honen buru Lehendakaria bera delarik. Euskalgintzarako elkarlana (=«Auzolana Euskalgintzarako») deritzon hitzaldi honen helburua hizkuntza politikaren oinarrien inguruko gogoeta egitea da.

Arazo honek duen nekea kontutan hartzen da —izan ere, euskarari bereziki dagokionez, ereduaren gabeziatik abiatu den lana bait da—, era berean, dagoeneko egina izan dena ere gogoan du, egitekorik asko geratzen bada ere. Hizkuntza politikaren helburua honetara zehazten zaigu: giza komunitate hizkuntza anizduna eratu zenbait belaunaldiren buruan. Hau da: ama hizkuntzaz gainera, gaztelera edo euskara ere jakin dakiena, bai eta nazio arteko komunikaziorako beste hizkuntza bat ere. Aldian-aldian, uneari, arloari eta lekuari dagokion hizkuntza aukeratzeko gauza dena. Hizkuntza politika honen jokaera eredu argi zehaztua da, hain zuzen, honako ezaugarri hauen arabera: errealitate soziolinguistiko ezberdinetara moldatu, legebidezko eremuetan lan egin, kontsentsurako gogora eta gehiengoaren borondatearen begiramenera jarri, aportazio positiboetarako jarrera irekia izan. Solidaritza bultzatzeari garrantzia ematen zaio —bereziki hizkuntza mailako solidaritzari—, bai eta konbidentzia sendotzeari; jakina, ezeri uko egin beharrik ez dela, eta inor alboratzen ez delarik. Azkenik, elkarlan eta sosegu giroa berreskuratze premia ari zaigu; berorretan elkar begiramenez, seriooki eta erantzukizunez joka dezagun.

herriak kultura eta politika aldetik oso egoera berezia bizi duen unean egin didatelako. Eta bigarrenik, horrelako abagaduneeek, eguneroko arazo eta gorabeheretan murgilduta gabiltzanoi, geldialdi bat egin eta azken garaietan izandako esperientziak eta ideiak antolatzeke aukera ematen ditugutelako.

Gaiari ekin aurretik, sarrera modura hitz bi egingo ditut, hizkuntza-normalkuntzaren bidean zehazt-mehatz non gauden argitzeko. Ondoren, ditugun helburuak eta zein eratan dihardugun azalduko dizuet. Ondoren, elebitasuna gaur egun zertan den aztertuko dut. Nere ustez, hori baita egungo egoera ondo ulertzeko funtsa. Orain arte esana, gure Herriak bizi duen egoeran kokatzen ahaleginduko gara, ahal den neurrian behintzat.

Bi hitz sarrera modura

Oraintxe bi urte egin zen Euskal Herri osoan Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik zuzenduta euskararen nahiz erdararen ezagupena, erabilera eta horiei buruzko jarrerak aztertzeke galdeketa soziolinguistikoa.

Joan den azaroan gure artean izan genuen galdeketa honen emaitzak aztertzeke lanera etorrira Montreal-eko Unibertsitateko irakasle den Richard Bourhis doktorea, hizkuntza gaietan aditua bera, eta Euskal Herriaren eta euskararen normalkuntzaren nondik norakoak azken urte hauetan gertutik jarraitzen ari den ikertzailea. Hemen bertako berrogei bat lagunenez, abertzale eta ez abertzale, osatutako lan taldearekin bildu zenean honako hauxe aitortu zuen: «Benetan gogoan har ezazue oso garai berezia dela oraingo hau bai soziolinguistikaren historian eta baita euskararen historian ere. Oso une garrantzitsua dugu hau, funtsezkoa benetan, hizkuntza honentzat. Izan ere elkarrekin gizalegez bere etorkizunaz hausnarketa egiteke aukera dugu eta baita erabilera bera ere biziberritzeke aukera hizkuntza plangintzaren bidez. Euskal geroaren apur bat behintzat zuen esku dago. Euskarak iraungo du baldin eta guztion artean iraupen honen aldeko ahalegina egiten baduzue».

Beraz, hiru gauza azpimarratu nahi izan zizkigun Bourhis-ek:

- hemen gertatzen ari dena nazioarteko adituentzat ere oso da aintzakotzat hartzekoa.
- garrantzi haundiko garaia da hau euskararen etorkizunerako.
- etorkizun hori guztion artean erabaki beharrekoa dugu.

Duela egun batzuk, lagun-talde batekin hizketan ari nintzela burura etorri zitzaidan orain hamabost urte hasi ginela gerora «A», «B» eta «D» ereduak izango zirenak tajutzen. Gure artean zen, orduan, besteak beste, M. Karmen Alzueta emakume ahaztu ezina. Gogoan ditut argi piska bat eta informazioa izateko irrika, lehendabiziko liburuak eta hainbat eta hainbat gauza.

Ez nabil lehengokoaren gogora-minez, baina, nik uste, oroitzapen horiek balio digutela, bai perspektiba eskuratzeko —hori funtsezkoa da orain eta gaur—, eta baita elebitasun kontuetan gure belaunaldiak erreferentzia urriak zituela gogoratzeko. Gauza bat zen hizkuntza jakitea eta beste bat, zeharo ezberdina, hizkuntza-normalkuntza bideratzea. Normalkuntzaren gaian bazen nora edo nori begiratua —urrutirago jo gabe Mitxelena maisuaren gogoeta zorrotz eta arretaz eginak—, baina, garai hartan, ez genituen ezagutzen, ez denak behintzat, eta hortxe zegoen koxka.

Ni neu, euskalgintzan urteak egin ondoren, doktoradutazarako lanean nebilela jabetu nintzen benetan gure aurrekoek 1936a bitarte egin zuten guztiaz.

Eta apaltasun osoz aitortu behar dizuet liluratuta eta mirestuta gelditu nintzela. Julene Azpeitiak 1930. urtean *Euzkadi* egunkarian, irakasleei zuzendutako artikuluetan, Montessori, Decroly eta Piageten berri ederki asko azaltzen zuen. Hau adibide bat besterik ez da, baina aipamen honekin Julene Azpeitia bera eta gure aurretik bidegile izandako guztiak omendu nahi ditut.

Beraz, ustez hutsetik abiatu behar, hain izan bait zen haundia etena gure eta gure aurreko belaunaldien jardunaren ezagutzan. Beste alderdi edo gai batzutan —politikan, ekonomian edo baita indarkerian ere— beti izan dira erreferentzi puntu gehiago, nahiz eta gero egokitzen jo ez eta baztertu. Baina elebitasuna besterik izan da. Gure herriaren ezaugarriak kontutan hartuta, gure eta guretzako ereduak egin behar izan genuen.

Izan ere, orain hitzez-hitz berritzera ez noan gertaerak tarteko, gure aurrekoen kezak eta jardunaren oroimena ia-ia xaretzeraino etorrira bait zeuden. 1960 eta 1970ko hamarkadetan gure aurrekoaz ezer gutxi genekien, eta kanpoko berri haundiegirik ez genuen, Catalunyatik barrena irrika osoz jasotzen eta ikasten genuen hura izan ezean. Beraz, gure egoera berez berezia izateaz gain, ez bertako eta ez kanpoko erreferentziarik gabe arazoak konpontzen hasteko arrisku gorrian egon ginen. Halere, urte gutxitan, nere uste apalean, gure herriaren ezaugarriak kon-

tuan hartu, barruko eta kanpoko erreferentziak bilatuz, hausnartuz, esperimentatuz eta aztertuz, gauza izan gara gure eta guretzako erdua tajutzeko.

Hori esateko badituz zenbait arrazoi:

Gogoan izan behar da Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak egin berri dituela hamar urte, eta lege marko horri esker hainbat erabaki hartu ahal izan dugula alor desberdinetan. Izugarriko aurrerapausoa da lege hori eskuetan izatea. Garai batean asmo, ilusio eta irrikak baino ez zirenak, gaur egun ekintza sendo eta tinkoak dira. Eta horrek ezin du atzera egin. Hasiera haietatik denbora gutxi igaro bada ere ondo pentsatuta egin dira emandako urratsak, neurtu egin ditugu alde eta kontra genituenak, entzun aldamenekoez eta urrutiagokoez esateko zeuzkatenak, eta hori dena eginda, gure ustez biderik eta modurik onena zena aukeratu genuen.

Bada beste zeozer ere. Orain artekoa ez da hausnarketa eta legeetara bakarrik mugatzen. Emaitzak ere baditugu, eta garbi antzematen direnak gainera. Gaurdaino gauzatutakoa joku intelektuala baino haruntzago doa. Urte gutxi horietan biurgunera iritsi gara, azkenean. Eta hori bai dela benetako lorpena. Batek daki zenbat urte zeramatzan euskarak atzeraka eginez, eta gaur, herri honetan, nahi den guztia esan eta eztabaidatuko da baina datuak hortxe daude. Euskarak atzera egiteari utzi dio eta, horretaz gain, estraineko aldiz, aurrerapauso nabaria ikus daiteke.

Datu bat baino ez. Gaur, Euskal Autonomi Elkartearen, duela hamar urte baino ehun mila lagun gehiagok hitz egiten dute euskaraz, eta beste ehun mila lagun gehiagok ulertzen dute. Lehendabizikoz, behe-raka egin beharrean goraka goaz, eta gorakada belaunaldi gazteneetan dago.

Ezin bestela izan eta eztabaidan dihardugu; ekonomi politikaz, autonomi politikaz edo biolentziaz dihardugun bezalaxe. Uste dut, eta benetan diot, denok nahiago izango genukeela bateratsuago ibili gai honetan eta beste batzuetan. Dena den, eztabaida eta adostasun-eza Euskadiko, Espainiako eta Europako bizitza politikoaren ezinbesteko ezaugarri dira. Hori horrela, ez dakigu zergatik ezin den patxaraz hartu hizkuntzaren inguruko eztabaida. Esate baterako, industri politikaz ari direnean, eta ez beti pakean, ez gara asaldatzen. Baina heldutasunez eta dramatismorik gabe jokatzeko ikasi beharko dugu. Hauteskundeetan oinarritutako sistema demokratikoa da gurea, eta horrek lagunduko digu aurrerantzean ere jarraitu beharreko bidea erabakitzen.

Hizkuntzaren inguruko arazoaz ari bagara ere, horrek ez du esan nahi batzuk konponduta ez ditugunik. 25 urte dira Arantzazuko Biltzarra egin zela. Han eman ziren euskara batzeko lehenengo urratsak. Gaur, aldarrikatu dezakegu, inolako beldurrik gabe, bateratze-prozesua burututa dagoela, eta ez edonola. Hizkuntza batua dugu, baina euskalkiak eta horiei zor diegun begirunea eta errespetua, gero eta handiagoa izango dena, baztertu eta ahaztu gabe.

Oraindik joan den larunbatean Mikel Atxagak Deian zioena ekarri nahi dut gainera gogora:

«Zerbaitetan bagara bat: euskararen egokitzapenean. Euskalki desberdinetan, euskara batuaren inguruko mila istiluetan eta herri-erakunde desberdinetan banaturik egon arren, euskararen egokitzapenean bide batetik goaz. Hala nahi da behintzat. Harrigarria. Hau ez baita katalan hizkuntzarekin gertatzen. Catalunyakoak egiten dutenetik bereizten saiatzen dira Valentziako erresuma zaharrean. Autopistako seinaleak irakurri besterik ez dago. (...) hizkuntz akademia bakarra dugu guztiok: Euskaltzaindia. Bestetik, administrazio desberdinetakoak elkarturik ditzute irizpideak. Ez zen batere erraza: Udaletxe desberdinak, Diputazio desberdinak eta bi gobernu desberdin. Itzultzaile bakoitza bere txokoan, bakoitza bere ahalbide, mania eta irizpideekin, gainetik elkarrekiko uzkur diren bi gobernu eta administrazio. (...) Herri-administrazio desberdinak bakarrik ez dira horretan ari, ordea. Eliza ere, nahiz eta eliz-probintzia desberdinetan sakabanatua izan, bere liturjirako ahal zuen testurik bateratuena egiten saiatu zen, euskalki desberdinetakoekin itzultzaile taldea osatuz. Eta jakina, Euskal Herri osora heltzen diren komunikabideek eta liburugintzak ere euskara modu bakar bat zabaltzen dute. Apustu hori irabazia dugu. Eta ez da gutxi, gure egoera politikoan. Katalan hizkuntzak lortu ez duena lortu baitugu.»

Euskarak, inolako ezpairik gabe, aurrera egin du azken hamar urteotan. Aurrera egin du demografikoki (hiztunak irabazten ari da etengabe) aurrera egin du geografikoki (duela zenbait mende desagertu zen hainbat herri eta hiriburutan berpiztu egin da) eta aurrera egin du erabilera eremu ikuspegitik (unibertsitatara, komunikabideetara eta administrazioa iritsi da, besteak beste).

Konpondu ditugu, beraz, zenbait arazo, eta ez oraingoak baino xamurragoak. Eskueran ditugu lanerako oinarritzko tresnak. Eztabaida hor

dago baina emaitzak antzematen hasiak gara. Eta gure ahalegina boro-biltzeko, euskararen prozesua, berezitasunak kontutan, erreferentzi puntu bilakatzen ari da gure mugetatik kanpo. Horretan ere goitik beherako aldaketa gertatu da.

Gure politikaren helburuak

Ikus dezagun zein arazori egin behar diogun aurre. Bai alde batekoek, bai bestekoek, bi hizkuntza ditugula onartu behar dute; hiztun gehiago edo gutxiago izango dituzte baina bi hizkuntzok elkarren ondoan bizi behar dute, denen onerako. Horixe da gaur dugun problemarik latzena. Bi hizkuntzok ez dute abiapuntu bera, baina hemen zaudetenok ondotxo dakizkizuen ez horren arrazoiak ez dizkizuet banan banan adieraziko.

Denek onartu behar dute bere bi hizkuntzetako bat, eta berezkoa duena gainera, gutxiengotua duen Herria garelara. Baina arazoa ez da printzipio mailan bakarrik onartu behar. Eguneroko jardunean ere gure egin behar dugu arazoa. Horretan, oraindik ere, zer egin handia dago.

Zer lortu nahi dugu? Bi belaunalditan, gehienez jota hirutan, herritarrek bi hizkuntzetako edozeinetan komunikatzeko gai izatea, bakoitzak nahi duena aukeratu ahal izan dezan. Horixe da nahi duguna. Ez da helburu makala, ez horixe. Baina lortu, lor daiteke; eta bat dator herri hone-tako jendearen eritzi eta gogo-asmoekin. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1991n egindako galdeketa soziolinguistikoaren arabera biztanle osoaren % 16a baino ez da euskararekiko interesik ez eta aurkako jarrera duena. Era berean, 10 herritarretatik 9ak Herri Administrazioak euskararen erabilera sustatu behar duela uste du. Badakigu bide zuzenetik ezezik gehiengoak nahi duenetik goazela; horrexegatik eusten diegu tinko eta sendo gure helburuei. Dena den, baliabideak jartzeko orduan malgutasunez eta praktikotasunari begira jokatzeko dugu. Guretzat lehen lehena belaunaldi berrien hezkuntza da eta, horrekin batera, belaunaldi berriengan sortzen diren aurrerakuntza guztiak gizarte bizitzan, baita administrazioan ere, txertatzea .

Neska-mutil euskaldunek gazteleraz ondo jakitea nahi dugu; ez dala gertatu garai batean bezala, herri txiki-txiki gurasoek gaztelera hutsen hezitzen zituztela beren umeak, beraiek jasan behar izan zituzten bazterkeria eta eragozpen sozialak eta profesionalak pairatu ez zituzten. Hori zekarren herri txiki-txiki gutxietsitako eta zigortutako euskara baino ez jakiteak. Helburu hori bete-betean ari gara erdiesten, salbuespen

baitira, gaur, gaztelera ere menderatzen ez duten gaztetxo euskaldunak.

Bestetik, gaztelaniazko hiztunek euskaraz ere jakitea nahi dugu, bi hizkuntzetan komunikatzeko gauza izan daitezen. Gaur egun komunikazioa elkar-komunikazioa da. Aurreko helbururako ez bezala, bigarren honetarako gogor aritu beharko dugu lanean, aurrerapausoak nabariak badira ere. Belaunaldi berriak euskararen, gaztelaren eta, jakina, hirugarren hizkuntza baten jabe izatea nahi dugu ... Guk proposatzen duguna ez al da ba benetako zeroer Europako iparraldeko zenbait herritan?

Jarduera

Orain artekoa helburuei dagokie. Ekin diezaiegun bada baliabideei, lortzeko bideei eta eguneroko zereginiei. Era berean, argi utzi beharko ditugu zenbait puntu.

Lehen aipaturiko berdintasun-eza zuzentzeko asmoz eta proposatzen dugun elebitasuna erdiesteko gogoz, guk euskal hizkuntza sustatzeko neurriak eta ekintza positiboak bultzatzen ditugu. Eta gure ustez, ezin ukatu daiteke gure Herriko hizkuntzaren normalizazioak egoera ahulean dagoen hizkuntzaren aldeko jarrera eskatzen duela. Baina ez dugu uste gaurrengungo politikan egiten ez den zerbaitetan ari garenik. Agian norbaitek uste izango du, gazteek hogeita hamar edo berrogei urtekoek baino zailtasun handiagoak dituztela lana aurkitzeko, baina horretan dagoenak jakin beharko luke, administrazioak, nola edo hala, lehentasuna ematen diela gazteei. Egia esan, edadetuxeagoak bazterturik geratzen dira nolabait. Beharbada zenbait langilek ez dute baztertze hori onartuko, baina bai, ordea, gizarteko gehienek. Izan ere, gizarteak badaki bidezkoa dela gazteek laguntza jasotzerakoan lehentasuna dutela, eta gainera, horrela, zenbait ondorio txar uxatu egiten direla. Emakumearen aldeko eta beste hainbat alorretarako ekintza positiboak ere politika honetan txertatu izan dira.

Tankera honetako adibideak egunero ikusten ditugu. Ezagun da herri-tar batzuek beste batzuek baino etekin handiagoa ateratzen dietela denok ordaintzen ditugun zergeri. Baina, gehienek onartzen dute zenbaiten aldeko diskriminazio hori. Bestela esanda: administrazioak baditu konpentsazio-mekanismoak, eta euskararekin ere erabili egiten ditu. Beraz, ezin da onartu mekanismo horiek euskarari egokitzean bakarrik egitea kritikak. Horregatik, erraz ulertuko duzue diskriminaziotzat jotzen den hori aitzaki hutsa dela.

Arreta berezia merezi duen beste gai bat, ekonomikoa da, alegia, euskara sustatzeko erabiltzen den diruarena. Atera ditugu kontuak, eta horren berri Legebiltzarrari eman diogu: 2.290 pta pertsonako eta urteko. Zeozer argi badakigu, horixe da, zenbat gastatu den hamar urte hauetan. Hala ere, gastatu den kopurua ezezik, lortu diren emaitzak ere ezagutu beharrekoak dira; azken batean, dirua ondare urria da eta gainera herriarena. Baina ere berean, gustatuko litzaidake jakitea zenbat gastatu den azken urteetan industriaren birmoldaketan edota errepideak egiten. Ez dut uste inork ere jakingo duenik, eta are gutxiago zenbat kostatzen zaigun zergaduoni lanpostu bat mantentzea.

Elebitasuna bultzatzeko gastatu den diruari buruzko informazioa, beraz, oso-osorik eman behar da, noski; baina, arren, ez dadila izan eskatzen eta alderatzen den informazio bakarra. Hori gertatzen bada, une horretan bertan, pentsatzen hasiko gara dagoeneko askok guk baino lehen susmatu dutena, alegia, zerbitzu publiko guztien emaitzak ez direla modu berean neurtzen, eta diskriminazioarekin gertatzen den bezalaxe, zenbaitzuren salaketak aitzakiak besterik ez direla. Hain zuzen ere, gaurregun onartezinak diren jarrerak zuritu nahian emandako aitzakiak.

Bestalde, legeriari hertsiki loturik ari gara. Estatutuak eta Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak diotenari jarraitu diogu, eta bestalde, Konstituzio-Auzitegiaren epaien zai egon gara administrazioan euskara bultzatzeko arlo guztiak abian jartzeko. Ez dago inolako lege-oztoporik. Are gehiago, bertako eta Estatuko lege-esparruan gabilta, eta gainera legetan, ikuspegi irekia, zabala eta gero eta aurreratuagoa du.

Bada besterik ere. Zenbait erakundek, sindikatuk eta horrelakok auzitegietan gure jokabidearen aurka aurkeztutako errekurso gehienak atzera bota izan dira bata bestearen atzetik. Ez dut datu horien garrantzia puztu nahi, ondotxo baitakit batek baino gehiagok lege-, gizarte- edo beste arloetako errealitateak bereizten dituen. Baina hori hor dago. Garrantzi handiegirik ezingo diogu eman, baina daukana kendu ere ez. Inork ezin digu ukatu, egiten ari garenak lege-segurtasuna du, derrigorezkoa, bestalde, geroan ere aurrera egin nahi bada.

Euskararen aldeko politikak helburuetan tinko behar du, baina mami-kuntzan malgutasunez jokatzea ezinbestekoa da, dela tokian-tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera jokatzuz (Administrazioko hizkuntz plan-gintza, adibidez) dela herritarren borondate eta eskaeraren arabera (hezakuntza sisteman eredu desberdinak proposatuz).

Eritzi guztiek dute nire errespetua, eta eritziari eustea bezain duina izan daiteke eritiziz aldatzea. Ezin gerta daiteke, ordea, gauza bat esan eta juxtu kontrakoa nahi izatea.

Adostasunez egin nahi dugu lan, baina duen balioa emanez, gizarte modernoetan erabateko adostasuna lortzea ia ezinezkoa gertatzen bait da. Horren aurrean, esan behar dugu, hobe dela adostasunez lan egitea, baina dena den, lan egitea dela kontua. Nolanahi ere, Legebiltzarra hor dago, eta berak esango digu euskal herritarren gehiengoaren eritziarekin bat ari garen ala ez. Zalantzarik izanez gero, Eusko Legebiltzarrera joko dugu, azken urteotan bezalaxe.

Sekula ez ditugu ukatu gure politikaren egokitzapen beharrak. Are gehiago, guk geuk, inork agindu gabe, aldaketak egin izan ditugu izandako esperientziak hala erakutsita. Hortaz, ezin izango digu inork leporatu malgutasunez jokatzeko ez dakigunik. Baina, ez dugu inoiz amore emango herritar gehienek borondatearen aurka jokatzeko badakarkigu. Horretara ez gara inoiz makurtuko. Horra, beraz, gure mugak.

Areago esango nuke, egokitzapen beharrak ezinbestekoak direla ia beti. Egoera elebiduna normaldu nahian bagabiltza, logikoa da lehena-ko ezinezkoak ziren egoerak gertatzea orain. Adibide bat jarriko dut: kasu batzutan, apaizek sermoia euskaraz egiten diete umeei lehen jaun-hartzean, eta gero gurasoei, berriz, erdaraz. Hau da, dinamika berri honek ezinbestez dakartzan arazoekin egiten dugu topo. Hori, bi modutan har daiteke: kontraesan eta arazo gehiagoren iturri gisa, ala normaltasunez, eta orduan kasu bakoitzari dagokion irtenbidea eman beharko zaio.

Ildo honi jarraituz, gaur egun bada semar-emazteen mota berria. Lehen ez zen hainbestetan gertatzen, baina gaur sarritan gertatzen da ezkontide bat elebiduna izatea eta bestea, berriz, elebakarra. Aitak hizkuntza batean egiten dio umeari eta amak beste batean. Gauza nabaria da elebitasuna aurrera doala gure familietan.

Baliteke, etorkizunean arazo zehatzak agertzea ele bietan aritzeagatik, baina gaureraino behintzat ez ditugu antzematen. Derrigorrezkoa izango da arazoari heldu eta irtenbidea ematea, baina horregatik ez dago eredu osoa ezbaian jarri beharrik. Ondorioz, gauzak beren lekuan jartzen ikasi beharko dugu. Eta elebitasunaren eta eleaniztasunaren teoria errei-bindikatsetik, elebitasunak praktikan sortzen dituen arazoak konpontzen ikasi beharko.

Hizkuntz normalkuntzaren ibilbideari buruzko gogoeta

Aurrerapausu handiak eman ditu euskarak eta euskal gizarteak azken urteotan. Neronek aipatu izan ditut adierazgarrienak beste zenbait momentutan eta baita arratsalde honetan ere. Aipatu nahi ditut estandarizazioa, komunikabideak, irakaskuntza, administrazioa... Era berean, etorkizuneko erronkak behin baino gehiagotan izan dira aitortuak: euskararen ezagutza hedatzea, gaitasunetik erabilerara pasatzea, e.a. Gaur, arazo sakonago batetaz hitz egin nahi dizuet: autogobernuaren urte hauek igaro ondoren, ez dugu oraindik sortu gure artean hizkuntz kultura elebidunik. Alegia, Euskal Herriko hizkuntz komunitateen arteko harremanek berdintsu diraute, aldaketa nabarmenik gabe.

Arazoak euskararen mugak gainditzen ditu, Euskal Herrian hizkuntz kultura elebidunik sortu ez dela esaten dudanean, gizartearen elkartasun maila oraindik ahula dela esan nahi baitut. Hizkuntzaren alorrean ere, bestetan bezalatsu, ez dago behar hainbateko elkartasunik. Hor dago kokka.

Hizkuntzena gizarte arazoa da. Eta egun, indibidualismoa hain errota dagoenean, gizarte arazoak «besteen» arazoak dira. Ez gara konturatzan, guk nahi izan edo ez, geure ondo-ondoan ditugula besteak. Nahita ere ezin ditugu alde batera utzi. Independenteenak ere, bakartienak ere, besteen beharra du. Erdaldunek euskaldunen beharra dute eta alderantziz. Arriskua honetan datza: euskaldunek herri honetan, gutxiengo direnez, gehiengoaren jokura eta hizkuntzara egokitu behar dutela pentsatzea.

Edukitzea izatea baino garrantzitsuagoa den gizarte eta garaian, ez da batere harrigarria hizkuntzari balio instrumental hutsa ematea. Balio al du euskarak lanpostu hobea lortzeko? Orduan ikasi beharko. Ez al du balio? Hala bada, utzi, ez du merezi eta.

Azaleko pragmatismo honen izenean, norberaren hizkuntzari atxekita dauden funtsezko ezaugarriak ukatu egin nahi dira: sentimenduak, maitetasunak, sustraiak, loturak, atxekimenduak... Hitz batean esanda, baita nongoak garen ere. Europa berria sortu nahi dugu. Gure herrian geuron buruak arrotz sentituko ditugun Europa berria ez ordea.

Lehen ederresten ziren birtute eta baloreen ordez interesak ari zaizkigu jabetzen. Ezertan edo ezereen kide ez dena, ahaltsua baldin bada, huraxe izango da saritua. Zein gizarte mota ari gara eraikitzen? Zein gizarte berri sortuko dugu elkartasuna eta berezko komunitateak ukatuz?

Elkarte honetan ez dugu hizkuntza bat, bi baizik. Eta bien ondoan, mundu ezberdinak: bestelako historia, sentiberatasuna, balore eta espe-

rientzia dutenak. Baina, batera bizi ezezik elkar onartu behar dute. Bate-tik, jatorrizko euskaldunak ditugu, euskara maite eta oinarritzko hizkuntza dutenak. Eta bestetik, euskararekiko oso bestelako sentiberatasuna dutenak eta, areago, beren hizkuntzarekin, gaztelania hutsarekin, pozik daudenak. Ahaleginak egin behar ditugu bien arteko aldea etorkizunean txikiagotu dadin. Izan ere, normalkuntzan aritzea egunero elkar onartzea eta elkarrekin ihardutea da, gizarte kohesionatuagoa eta integratuagoa egitea. Buka bedi 1991ko azaroan, hementxe bertan, Bernardo Atxagak adierazi ziguna:

«... zeren, esan bezala, zenbat eta aurrerago David, orduan eta beteago Goliaten bularra gorrotoz.»

Honexegatik **Auzolana euskalgintzarako**. Euskal Herri osoan hain erroturik izan eta zorionez oraindik bizirik dirauen jokabidea: elkar lanaren bidez helburuak lortu.

Azkenean, gure herriaren normalkuntza

Azkenaldi honetan euskararen aurkako ahotsak ozenago entzun dira. Ez datoz bat elebitasunaz gehiengoak pentsatzen dugunarekin. Gatazka areagotu egin nahi dute gure gizartean eta bizitza politikoa desestabilizatu. Horrek euskaldunen artean mehatxu giroa sentitzea ekarri du. Nahigabea zabaldu da zenbaiten artean eta giro hori berbideratu beharra dago.

Catalunya ekarri nahi dizuet berriro gogora. Han egoera bestelakoa dela esaten da. Hala da, baina ez oso-osoan. Catalunyan katalana hedatuago badago ere, biztanlegoaren herenak gutxi-gora-behera ez daki katalanez. Ulertu, gehiagok ulertzen dute eta katalanez egiten dutenak hemen euskaraz baino askozaz ere gehiago dira. Ados, baina ez didazue ukatuko %30 daitezkeenezko botu-emaleen baitan oinarrituta, beste jokabide politikoak har zitezkeenik. Izan ere, izan ziren horretarako kanpainak bere garaian. Batzuek gogoan izango dituzue. Baina aldea hau da, Catalunyan abertzaleek eta abertzale ez direnek batera jokatu dute hizkuntzaren inguruan. Izan ere, non ditugu gure artean, batzuek aipatzekotan, Julio Urkixo, Toribio Etxeberria eta Tomas Meaberen ondorengoak? Badugu denok zerikasirik.

Lehen, bi hizkuntz komunitateen arteko elkartasunaz (elkertasunez) hitz egin dugu. Euskaraz ez dakienari batzuek eskatzen diotena zera da, gutxienez bere seme-alabek ikas dezatela eta berena egin dezatela. Eta era berean, euskaldunei gaztelania Euskal Herriko biztanleen hiz-

kuntzatza ere hartzea eskatzen zaie. Gure lagunkidetasunaz denok irabazten dute. Inork ez du ezer galtzen. Bernardo Atxagarena gogoratu:

«Baina nik, euskalduna ere izanik, batu egiten dut: Cervantes gehi Orixe; zuk berriz, kendu: Cervantes ken Orixe».

Erantzunkizudun den inori ez zaio komeni zatiketa eta haustura handitzerik. Ez zaie komeni abertzaleei, baina ezta abertzale ez direnei ere. Abertzaleei ez, euskara bereziki sentitu egiten dutelako. Abertzaleak ez direnei ezta ere, Euskal Herriko biztanleak, are gehiago gazteenak, gero eta bertoratuagoak daudelako. Euskarak ideologia edo alderdi politiko konkretu batek baino luzaroagoan iraun du eta iraungo du.

Amaitzera noa. Ados ez egoterik eta eztabaidatzerik badago eta beharrezkoa da demokrazian. Gaur egun ez da eztabaidarik sortuko ez duen erabaki politikorik. Baina eztabaidak sortzen dituela eta, besterik gabe, ezin da zalantzan jarri egiten ari den guztia. Sarritan zentzuz jokatu beharra gogoratzen zaie erantzunkizun soziala eta politikoa dutenei. Hizkuntza-politikari dagokionez beste hainbeste. Gairen bat baldin bada minbera, hizkuntza da hori. Kontuz, gozo eta erantzukizunez jardun beharreko gairik bada, hizkuntz normalkuntza da hori. Eta gogoan izan, proposatzen dugun honetan, denok gara irabazle, inor ez da gaitzaile. Nahi nuke jakin baden gurea baino eskaintza hoberik. Gogora ditzadan, bukatzeko, Koldo Mitxelenaren hitz haiek:

«Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntzen artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela ez gaitzela ghetorearen ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezein bezain beharrezkoa dugu».